


The logo for Gertuan Fundazioa features the name 'Gertuan' in a large, black, sans-serif font, with 'Fundazioa' in a smaller font below it. The text is centered within a circular arrangement of light blue dots of varying sizes, creating a textured, organic feel.

Gertuan
Fundazioa

A young man with dark hair, wearing a blue flat cap and a light blue button-down shirt, is looking intently at a brown horse. The background is a blurred outdoor setting with a wooden fence and greenery.

memoria 2025

Gipuzkoan babesgabetasun egoeran dauden eta
adimen edo garapen-desgaitasuna duten pertsoneri laguntzen diegu.

Morlans Pasealekua 14 Behea | 20009 Donostia | 943 05 10 95 | gertuanfundazioa@gertuanfundazioa.eus



m e m o r



Gertuan
Fundazioa



ia / 25

Jarraian, **Gertuan Fundazioaren 2025eko jarduera-memoria** aurkezten dizuegu. Bertan, egindako ekintza nagusiak eta aurtengo datu garrantzitsuenak jasotzen ditugu.

Etengabeko hobekuntzan sinesten duen fundazioa da gurea. 41 urte baino gehiagoko ibilbidearen ondoren, adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen bizitza-proiektuak egikaritzen jarraitzen dugu, beren eskubideak defendatuz eta betebeharrak betetzen lagunduz.

*41 urte hauen ostean, ordea, hasierako balio berdinekin dihardugu: gertutasun eta konfiantzaz, duintasun eta errespetuz, gardentasunez, konpromiso eta erantzukizunez. Hasierako helburu berdinekin, **Bidelagun** izanez, **Gertuan eta Gertutik** lan eginez.*

Urteroko gisan, lerro hauek aprobe txatu nahi nituzke bereziki eskerrak emateko fundazioko talde profesionalaren, Patronatuko boluntarioen eta egunerokoan gure babesa jasotzen dutenengandik gertu dauden boluntario guztien ahalegin eta prestutasunagatik.

Eskerrak eman nahi dizkiet, halaber, erakunde laguntzailei eta kolaboratzaile diren erakunde guzti guztiei. Guztion lanarekin jarraituko dugu, adimen- edo garapen-desgaitasuna duten bizi proiektuak egikaritu eta bizi kalitatea hobetzea.

Eskerrik asko zuen inplikazioagatik, konfiantza eta konpromisoagatik.

Besarkada handi bat.

Inma Hernández León
Gertuan Fundazioko lehendakaria

Gure misioa eta ikuspegia

Gertuan Fundazioa irabazi-asmorik gabeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko erakundea da, desgaitasun intelektuala edo garapen-desgaitasuna duten eta babesgabetasun-egoeran dauden helduei laguntza ematen diena, beren gaitasun juridikoa gauzatu ahal izateko.


Gure esku-hartzearen oinarriak honako hauek dira:

- Autonomia sustatzea.
- Lotura esanguratsuak sortzea.
- Pertsonarengan oinarritutako plangintza.

Pertsona bakoitzaren **ahalduntzea eta autonomiaren sustatzea** bultzatzen dugu. Gure helburua da, pertsonak beren erabakiak segurtasun eta konfiantzaz hartu ahal izatea da; horrela, autonomia indartuz, betiere haien nahi eta gogoak errespetatuz.

Desgaitasun intelektuala edo garapen desgaitasuna duten pertsonekin eta gizartearekin konprometitutako erakundea da gurea, izan ere, desgaitasuna duten pertsonak:

- Gizartean erabat integratzeko.
- Beren eskubideez gozatzeko.
- Beren bizi kalitatea hobetzeko.





Fundazioaren historia



1977

Atzegik
"Etorkizuneko
Prestakuntza" programa
jartzen du martxan.

1983

Atzegi Babes Fundazioa
sortzen da.



ATZEGI
BABES FUNDAZIOA
FUNDACIÓN TUTELAR

2014

Eusko Jaurlaritzak
Fundazioa interes
sozialeko erakunde
aitortzen du.

2008

Euskadiko gizarte-
zerbitzuen kartera
argitaratzen da eta
tutoretza-zerbitzua
sartzen da karteran.



2021

8/2021 legea onartzen da, **Gertuan Fundazioa** deitura aldatu eta egoitza lekualdatzen da.


2022

Lan-hitzarmen propioa sinatzea.

2025

GFArekin kontratu-programa sinatzea, gure laguntza eredua indartuz eta sendotuz.

2025eko mugarri nagusiak



Profesionalen ongizate emozionalerako proiektua abian jartzea.

GFArekin kontratu programa berri bat sinatzea, gure laguntza-eredua indartuz eta sendotuz.

Gertuan Fundazioaren laguntza-eredu berria ezartzea.

EHUrekin lankidetzahitzarmen bat sinatzea, praktikan dauden pertsonak inkorporatzeko.



Ongi-Etorri programa, desgaitasuna duten pertsoneri harrera eta ongi-etorria egiteko ekitaldia, Fundazioaren laguntza neurri judiziala dituztenekin.



Erabakiak hartzen laguntzeko erakundeen Liber elkartearen 30. urteurreneko ospakizunetan parte hartzea.




Gipuzkoako Estatuko osasun mentaleko erakundeekin, adinekoekin, eta Fiskaltza Nagusiko desgaituen fiskalarekin izandako topaketa.

Gure datuak


225
PERTSONA

196 Neurri judizialen sistema.
29 Pretutelak / Balorazioan.

Izendatutako kasuen kargu judizialak Gertuan Fundazioa 2025




Azken 10 urteetako altak eta bajak 2015 - 2025



Gure datuak

Pertsonak adinaren arabera 2025





Elkarrizketa

Felisa Bastida Landa

1962, Azpeitia, (Gipuzkoa).

Noiz ezagutu zenuen Gertuan fundazioa?

*Itxasoren (**Gertuan**) bitartez ezagutu nuen fundazioa, gizarte-zerbitzuetan. Zailtasun askorekin bizi ginen Azpeitiko gure etxean, nire seme Xabier eta Joakin senar ohiarekin.*

Mikel, beste semea, bakarrik bizi da.

Azpeitiko Udaletik beti lagundu digute. Haien bitartez, fundazioak lagundu zezaketela esan zidaten, eta baietz esan nuen, baina nire seme Xabierrekin bizitzen jarraitu nahi nuela.

Nola gogoratzen duzu hasiera hura?

Hasieran ez dut dena gogoratzen, baina epaitegira joan ginela uste dut. Galdera asko egin zizkidaten eta nola lagun ziezadaketen azaldu zidaten. Baietz esan nion, baina semearekin jarraitu nahi nuela eta nire seme Xabierrekin ere egon ziren.

*Nik ez dut jakin dirua ondo erabiltzen, laguntza behar dut. Fundazioak erakutsi eta lagundu egin dit. Martin ezagutu nuen (**Atzegiko** Bizitza Independenteko programa), etxea antolatzen eta errekaduak egiten laguntzen zigun. Gero etxebizitza berri batekin lagundu ziguten. Semea nirekin bizi zen eta senar ohia beste pisu batean, baina harreman ona izaten jarraitzen dugu.*

Urte hauetan atzera, zertan lagundu dizu fundazioak?

Egoera txarrean eta hipotekarekin zegoen gure etxea saltzen lagundu zidaten. Diruarekin, paperekin eta tramiteekin lagundu zidaten, gauza horiekin galtzen naizelako.

***Gureakekin** ere lagundu zidaten. Lehen etxeren bat garbitzen nuen eta fundazioak Azkoitiko tailerran sartzen lagundu zidan. Gero **Gureakeko** garbitasunera joan nintzen. 15 urte inguru eman ditut, lehenengo Zumaiako egoitzan eta gero Donostian.*

*Gero iktus bat izan nuen. Ospitalean medikuarekin egon nintzenean lagundu zidaten, eta **beti egon ziren nire ondoan.***

Etxera ezin nintzela itzuli esan zidatenean, Azpeititik gertu bizitzen lagundu zidaten, eta orain egoitzan bizi naiz. Beldur nintzen eta nire seme Xabierri ere lagundu zioten bizi ginen tokian bizitzen jarraitzen, bere aitarekin bizi da, Joaquinekin.

Nola bizi zara zu zure egunerokotasunean?

*Orain oso ondo eta pozik nago. **Atzegiko** pisuan bizi den nire ahizparekin egunero geratzen naiz, igandero joaten naiz semea ikustera bere etxera eta bera ere etortzen da, eta kafea hartu eta buelta bat ematen dugu. Xabierrekin (**Gertuan**), Donostiara edo «Urbilera» joatea ere gustatzen zait, erosketaren bat egitera eta pintxo bat jatera.*

Lourdeserako bidaia antolatzen ere laguntzen didate.



Etorkizuneko konpromisoa

Fundazioaren jatorrian eta sorreran familiek zituzten zalantza, kezken artean galdera garrantzitsu bat zegoen. “Nor arduratuko da nire semeaz edo alabaz ni ez nagoenean?”

Horregatik guztiatik, **Gertuan Fundaziotik**, desgaitasun intelektuala eta/edo garapena duten familiei etorkizuna prestatzeko informazioa, aholkua eta orientazioa ematen jarraitzen dugu.

2025ko abenduaren 31n, adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen familiekin formalizatutako etorkizuneko konpromisoak **39** izan dira guztira.

***«Etorkizuna pausoz pauso
eraikitzen da. Aurreikusiz eta
prestatuz»***



Boluntariotza

Laguntza eskaintzen diegun pertsonekin pertsonen arteko harreman iraunkorrak izatea funtsezkoa da haien ongizate emozionalerako. Lan horrek garrantzi berezia du harreman-sare hain zabala ez dutenengan.

Gure boluntariotza-programaren bidez, desgaitasuna duten pertsoneri beren harreman-sareazabaltzeko aukera eskaini nahidiegu, lotura esanguratsuak sortuz. Honi esker, aktiboki parte har dezaketekomunitate eta gizarteko kultura-, jolas- eta kirol-jardueretan, besteak beste.

Gure fundazioan, **laguntza bakoitza pertsonalizatua eta naturala da**. Boluntarioek, erakundeko profesionalekin lankidetzan, laguntza-plan bat diseinatzen dute desgaitasuna duen pertsonarekin batera, haien behar eta nahi espezifikoak erantzuteko.

Horrela, boluntariotza-zerbitzua programa garrantzitsua bihurtzen da laguntzen dugunon bizi-kalitatea hobetzeko, gizartean erabateko integrazio esanguratsua bultzatuz.

Boluntariotza programaren helburuak:

- Laguntzak ematen dizkiegun pertsonen giza-harreman positiboak eta aberasgarriak izan ditzaten sustatzea.
- Gizarte justuagoa eta solidarioagoa eraikitzea.
- Desgaitasuna duten pertsonen gaitasunak gizarteratzea eta hauen eskubideak defendatzea.
- Aurreiritziak ezabatzea.
- Elkertasuna eta parte-hartzea bezalako balioak bultzatzea.

Bozeramaileen taldea

Bozeramaileen taldeko parte hartzaileak hurrengoak dira:

Jose Mari, Aritz, Mikel, Manuela, Arantxa, Isabel, Lourdes, Arantxa.

Bozeramaileen taldea **Gertuan Fundazioak** duela urte batzuk hasi zuen programa bat da. Talde hori laguntza ematen diegun pertsonak osatzen dute, eta espazio hori baliatzen dute beren bizitzak hobetzen laguntzeko kezak eta iradokizunak transmititzeko eta adierazteko.

2025ean zehar, Bozeramaile Taldeak fundazioan sartzen diren pertsonentzako Ongi Etorri programa indartzeko helburua izan du. Plan honek prestakuntza saio eta hainbat jarduera bildu ditu, kide berrien inkorporazioa eta ongizatea errazteko eta, horrela, lehen unetik ongi hartuta senti daitezen bermatzeko. Janari, musika eta dantzaz girotutako jardunaldia izan zen, eta elkar ezagutzeko aukera paregabea eman zigun.

Datorren urteari begira, Bozeramaile Taldeak fundazioarentzat berebiziko garrantzia duen gai bati helduko dio: bizitoki edo egoitza-aldaketetako laguntza.



Askotan, adinak aurrera egin ahala edo premia berriak sortzean, egoitza-aldaketak ematen dira, dela etxebizitza independentetik egoitza batera igarotzeko, dela egoitza batetik bestera mugitzeko. Egoera horiek samurragoak izan daitezten, taldearen helburua laguntza-baliabideak eta praktika onen dekalogo bat sortzea da, prozesu bakoitzean akonpainamendu hurbila eta integrala bermatzeko.

Bozeramale programa honen bitartez, bestalde, laguntzak eskaintzen dizkiegun pertsonak fundazioaren gobernu organoa den Patronatuari helarazten dizkioten kezka eta iradokizunak transmititzeko komunikazio-kanala ere bada.

Gure lan taldea

Gertuan Fundazioa osatzen duen lan taldea hurrengo hauek osatzen dute:

- Patronatua, 14 patronatukide eta idazkaria.
- Profesional-talde bat, honako hauekin:
 - Zuzendari bat.
 - Ekonomia-arloko arduradun bat.
 - 2 administrari.
 - 10 teknikari erreferente.
 - 2 laguntza-laguntzaile.
 - Praktiketako pertsona bat.
- Fundazioak azpikontrataturako kanpoko zerbitzu profesionalak (aholkulari juridikoak, auditoreak, ikerketa aplikatuko aholkulariak, etab.)

Prestakuntza eta etengabeko hobekuntza

Urtero bezala, **Gertuan Fundazioan** garrantzi handia ematen diogu lan-taldearen etengabeko prestakuntzari. Uste dugu ikasten jarraitzeak gure garapen profesionala hobetzeaz gain, eskaintzen dugun laguntza eguneratuagoa, egokiagoa eta une bakoitzeko beharretara hobeto egokitua izatea ahalbidetzen duela.

Horregatik, hobetzen eta aurrera egiten jarraitzeko, oso garrantzitsua izan da **Plena Inclusión Euskadi**rekin eta **Liberrekin** izandako lankidetzak.

Hona hemen **Gertuan Fundazioko** lantaldeak 2025ean egindako ikastaro, jardunaldi eta prestakuntzen zerrenda:

- *Gipuzkoako Foru Aldundiaren koordainketaren inguruko lan taldeko formazioa.*
- *Etiketek diru laguntzaren inguruko lan taldeko formazioa.*
- *Datu babesaren inguruko formazioa.*
- *Adimen-garapenaren nahasmendua duten pertsonen gaixotasun mentala eta jokabide-alterazioak: ebaluatzeko eta esku hartzeko metodoei buruzko formazioa.*

- *IA – Komunikazioa ikastaroa.*
- *Desgaitasuna duten pertsonen erretiro-prozesuetan legezko laguntza emateari buruzko formazioa.*
- *Suizidioaren Prebentziorako Prestakuntza.*
- *Irisgarritasun kognitiboa: inguruneen seinaleztapena eta esperientzia praktikoei buruzko prestakuntza.*
- *Arlo soziosanitarioko trantsizioei buruzko prestakuntza.*
- *Ongi izatea: zaintza eta ongizatea.*
- *Hurkoa: laguntza neurri judizialen urteko topaketa.*
- *Plena Inclusion: Kode etikoa.*
- *Laguntza eta legeari buruzko prestakuntza: kultura berri baterantz.*
- *Prestakuntza, interdependentzia esparruetan eta benetakotasun horizonteetan.*
- *Adimen-desgaitasuna duten emakumeengan genero-indarkeria prebenitzeko, garaiz detektatzeko eta modu integralean lantzeko lanbide-heziketa, gizarte-arlorantzuzendutakoa.*

Elkarrizketa

Gorka Fernandez Goenaga

1995, Bergara, (Gipuzkoa).

Gorka, zenbat urte dituzu? Nongoa zara?

30 urte ditut. Lehen Osintxun (Bergaran) bizi nintzen, baina nire gurasoak banandu zirenean amarekin joan nintzen Antzuolara bizitzera eta nire aita Osintxun geratu zen. Hiru anai-arreba gara: nire arreba nagusia Elgoibarren bizi da, ni erdikoa naiz eta nire anaia txikiena amarekin bizi da.

Nolakoa izan zen «Atzegiko» pisura bizitzera joateko aldaketa?

*Antzuolan amarekin bizi nintzenean batzuetan eztabaidak izaten genituen eta elkarbizitza ez zen beti erraza. Amak **Atzegiko** pisu batera joatea proposatu zidan. Hasieran ez nuen nahi, aldaketa handia zelako eta amarekin jarraitu nahi nuelako. Baina probatzea erabaki nuen. Astebetean erabaki behar izan nuen, eta azkenean Aretxabaletako pisura bizitzera joateko aukera izan nuen. Banekien amarekin harremana mantenduko nuela.*



Zein da zure egunerokoa, zertan egiten duzu lan?

*Pisuan sartu aurretik, **Pauso Berriak** programaren bidez egoitza batean hasi nintzen lanean eta bertan egiten dut lan. Sukaldean lan egiten dut eta hainbat lanetan laguntzen dut: garbitzen, toailak tolesten eta behar denean lankideei laguntzen. Lanean asko lagundu didate nire bizitzako aldaketa hauekin eta gustura nago.*

Zertan laguntzen dizu Gertuan Fundazioak, nola zaude orain?

*Fundazioak asko laguntzen dit eta asko eskertzen dut. Eneritz da nire erreferentea. **Dirua aurrezten eta kudeatzen laguntzen dit, etorkizunerako planak antolatzen, Liga Genuineko gauzetan... Beti entzuten nau eta hau asko eskertzen dut.***

Batzuetan pisuko arduradunekin edo lanekoekin hitz egiterako orduan ere laguntzen dit. Azken urteetan nire bizitza asko hobetu da: lasaiago nago, entzuna sentitzen naiz eta amarekin dudan harremana ere hobea da. Oso eskertuta nago jasotzen dudan laguntzagatik.

Emitzen kontua

	2025	2024
Jarduera propiogatikoak erakundearen diru sarrerak	999.561 €	789.104 €
Ustiapeneko beste diru sarrera batzuk	38.412 €	39.441 €
Pertsonal gastuak	742.348 €	611.148 €
Ustiapeneko beste gastu batzuk	265.105 €	190.873 €
Ibilgetuaren amortizazioa	41.624 €	42.897 €
Ekitaldiko emaitzara transferitutako kapital diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	21.123 €	21.123 €
USTIAPENAREN EMAITZA	10.019 €	4.750 €
FINANTZA EMAITZA	-2.227 €	-3.591 €
EKITALDIKO EMAITZA	7.792 €	1.159 €

Kontu hauek, Sayma Auditores S.L. kanpo enpresak, 2026ko martxoan auditatutako kontuak izan dira.



IRUN
www.irun.org

laguntzarekin.



hitzartua.

Partaide garen erakundeak:

